

Nafarroako 2020ko Aurrekontuak austeritate politikarekin jarraitzen du

***EH Bildurekin egindako akordioak
ez du Gobernuaren
proposamenaren norabide
antisoziala aldatzen***

2020ko otsailaren 24a



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

O. Sarrera

2020ko Nafarroako aurrekontua PSNk, Geroa Baik eta Podemos Ahal Duguk osatutako Nafarroako Gobernu berriak aurkeztzen duen lehen aurrekontua da.

Gobernu honek aurkeztutako Aurrekontu Proiektuak hiru talde politiko horiek Izquierda-Ezkerrarekin batera sinatu zuten Akordio Programatikoa adostutakoari erantzuten dio, eta Gobernu honen ildoak markatzen du, bai 2020rako, bai legegaldi osorako ere.

Akordio Programatikoa helburua ez da Nafarroan gizarte-aldaketa bat ezartzea, ezta aurkeztutako Aurrekontu Proiektuarena ere, eta, aldi berean, Estatuak arlo ekonomikoan ezarritako muga guztiak bere gain hartzen ditu, eta horiek defendatzeko deia egiten du.

Dokumentu honetan 2020rako Nafarroako Aurrekontu Proiektua aztertuko dugu, eta egiten ari den testuinguru politikoan eta edukian zentratuko dugu gure balorazioa. Hala, lehen atal batean aurrekontu politika aztertuko dugu, aurrekontua egiteko garaian ezartzen dituen baldintzatzaileak aztertuz, eta 2020rako Nafarroako Aurrekontu Proiektuaren edukia; eta bigarren atal batean, Aurrekontua aurrera ateratzeko EH Bilduren eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordioa baloratuko dugu.

1. Austeritate politikak indarrean jarraitzen du

1.1 Politikoki eta ekonomikoki baldintzatutako aurrekontua

Oraingo Nafarroako Gobernuak onartzen duen lehen Aurrekontu Proiektua da hau. Eta mantendu egin da aurreko Gobernuaren aurrekontua egiteko modua, hau da, inolako parte-hartze sozialik gabe. Beste behin ere, erakunde sozial eta sindikalek ez dugu aukerarik, gutxieneko baldintzekin, zerga eta aurrekontu-politika lantzeko eta eztabaidatzeko.

Lehenengo lepotik burua. Aurreikusitako bide bakarra Kontseilu Ekonomiko eta Soziala da, eta inola ere ez da erakunde sozial eta sindikalek benetan parte hartzeko mekanismo bat. Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren funtzionamendua ez da aldatu, eta izapide hutsa izaten jarraitzen du; izan ere, lege-betekizun horrek eskatzen du Gobernuak Aurrekontu Aurreproiektua Kontseilu Ekonomiko eta Sozialera bidaltzea, Aurrekontu Proiektua Parlamentura bidali aurretik.

Gainera, erabaki politikoei erantzuten dieten eta Nafarroako aurrekontu-politika erabat markatzen duten hainbat elementuk baldintzatzen dute Aurrekontuaren Proiektu hau, hala nola gastu-arauak ordezkatzeko duen politika murriztailea onartzea (eta defendatzea), Nafarroako Gobernu berriari eman zaion gehiegizko dimentsioa, eta zor publikoa eta itzalpeko bidesaria onartzea, aurrekontuko gainerako partida guztietan ez bezala, zalantzan jarri gabe.

1.1.1. Gastu araua: Nafarroak bere aurrekontuari buruz erabakitzeke duen ahalmena mugatzea adostu da

Nafarroako Gobernuaren aukera aurrekontu politika murriztailea da. Gobernuak sostengatzen duten indar politiko nagusiek bai Madrilan bai Nafarroan gastu arauaren eta aurrekontu politikaren mugen alde egiten dute.

2020rako aurrekontua Nafarroako Gobernuak 2018an Espainiako Gobernuarekin (une hartan Rajoyk gobernatzen zuen) egindako akordioak baldintzatzen du. Akordio horretan defizit publikoaren eta zor publikoaren mugak ezartzen dira 2018-2020 aldirako eta gastu-araua ezarri. Akordio hori uztailaren amaieran argitaratu zuten, prentsa-ohar baten bidez, eta haren garrantzi politikoa eta ondorio sozial eta ekonomiko kaltegarriak ezkutatzeko asmoz.

2020ko aurrekontuari begira, une hartan Nafarroako Gobernuak konpromiso hauek hartu zituen:

- BPGaren %0ko defizit publikoa izatea.
- Zor publikoaren maila ez izatea BPGaren %16,4 baino handiagoa.
- Aurrekontuaren hazkuntza gehienez ere %2,7ra mugatzea termino nominaletan 2019koarekin alderatuta. Hau da gastu araua. Arau horrek berariaz adierazten du aurreikusitakoaren gainetik lortzen diren diru-sarrerak zor publikoa murriztera bideratuko direla oso-osorik.

Aurrekontuei ezarritako muga horiek guztiak (eta bereziki gastu-arauak), gastu publikoa murrizteko tresna dira, egoera ekonomikoa hobea edo okerragoa izanda ere, gastu soziala ez handitzeko saiesten dutenak. Gastu araua erakunde guztiak beren baliabideen hazkuntza txikia izatera "behartzeko" tresna da. Aurrekontu-esparru hori bateraezina da jarrera aurrerakoiekin.

Gastu araua aurrez aurreko eraso da Nafarroako erakundeek aurrekontuak erabakitzeke duten ahalmenari.

1.1.2- Zor publikoak eta itzalpeko bidesariak 10 eurotik 1 eramaten dute

2020an Nafarroako Gobernuak 354,3 milioi euro (BPGaren %1,6a) bideratuko ditu zorra ordaintzera. Hau da, aurrekontu osoaren %7,7 joango da zor publikoa eta horren interesak eta gastuak ordaintzera. Gastu baliokide bat, adibidez, Migrazio Politikak eta Justizia Departamentura bideratutako gastuaren bederatzi bider eta erdi da. Gastu horren zati handi bat zorraren interesari eta harekin lotutako gastuei dagokie, 66 milioi euro 2020an. 2008tik 2020ra, 3.707,3 milioi euro ordainduko dira zor publikoan.

Horri zor publikoarekin antzekotasun handia duen itzalpeko bidesaria gehitzen zaio. Obra handiak ordaintzeko erabili izan den mekanismo bat da (Nafarroako Kanala edo A-21 eta A12 autobideak): obra baten eraikuntza eta finantzaketa enpresa pribatu batek egiten du, eta Gobernuak ordaindu egin behar du obra horren erabileragatik. Horrela, administrazioak epe laburreko zorpetzea saihesten du eta kontuak makillatzen ditu, nahiz eta epe luzera gastua askoz handiagoa izan.

2020rako Aurrekontu Proiektuak itzalean dagoen bidesariagatik 100 milioi euro ordaintzea aurreikusten du, 2019ko gastu finkatua baino 6,1 milioi gehiago. 2008tik gastu hori 58,4 milioi

eurotan handitu da, eta urtetik urtera handitzen jarraitzen du, Comptos Ganberak ohartarazi izan duen bezala.

Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria batuz gero, 2020an 454,4 milioi euro gastatuko dira, aurrekontuaren %9,9. Beste modu batera ikusita, 1,24 milioi euro gastatuko dira egunean zor publikoaren eta itzalpeko bidesariaren ordainketan.

Gastua zor publikoan eta itzalpeko bidesarian (milioi eurotan) 2008-2020

	2008	2010	2015	2019	2020
Zor publikoa	28,2	144,1	414,3	337,3	354,4
Itzalpeko bidesaria	41,6	43,9	68,2	96,3	100
Guztira	69,7	188,1	482,5	477,1	454,4

Iturria: Nafarroako Gobernuak

Puntu honetan beharrezkoa da Estatuari egin beharreko ekarpena aipatzea, 2020an 585,6 milioi eurokoa izango baita (hori gastu hau kudeatzen duen Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontuaren erdia baino gehiago da).

Estatuari egindako ekarpena 5 urtean behin egiten diren negoziazioen arabera kalkulatzen da, eta 2020an negoziatzea tokatzen da. Ordainketa ez da batere gardena, inon ez baita zehazten zer den benetan ordaintzen ari dena eta nola kalkulatzen den. Gainera, kontuan hartu behar da ekarpen horretan Estatuaren zor publikoaren zati bat ere ordaintzen ari dela, eta, beraz, nafarrentzat zor publikoan egindako gastua lehen aipatutako 354,4 milioiak baino are handiagoa dela.

Zor publikoak, itzalpeko bidesariak eta Estatuari egin beharreko ekarpenak erabat baldintzatzen dute Nafarroako aurrekontua. Partida hauek ez dira eztabaidatzen edo zalantzan jartzen, eta ez da horiei buruzko informaziorik ematen aztertu ahal izateko.

Zor publikoa, itzalpeko bidesaria, eta Estatuari egiten zaion ekarpena kontuan hartuta, gizarte beharrei aurre egiteko Nafarroako Gobernuaren esku geratzen den aurrekontu erreala gero eta txikiagoa da.

1.1.3- Zerga sistema eskasa, bidegabea eta enpresei iruzurra ahalbidetzen diena

- ***Europako batez bestekoa baino 1.640 milioi gutxiago***

Europar Batasuneko zerga-sistemarekin konparatuta, jakin dezakegu zein den gure egoera nazioartean, hau da, Nafarroan gure nazioarteko ingurunearekin alderatuta asko edo gutxi biltzen den, eta diru-bilketan dugun marjina zein den jakin dezakegu.

Presio fiskalak neurtzen du ekonomia osoarekiko (BPG) biltzen den dirua (itundutako zergen, Gizarte Segurantzaren eta udal zergen artean). Nafarroan presio fiskala %30,9koa izan zen 2017an (eskuragarri dagoen azken datua). Europako batez bestekoarekin alderatuta, aldea BPGaren 8,1 puntukoa izan zen (EB-28ko batez bestekoa %39koa izan zen 2017an). Hau da,

Nafarroak presio fiskala Europako batez bestekoarekin parekatuko balu, urtean 1.638,9 milioi euro gehiago bilduko lirateke. EB-28n 4 estatuk bakarrik dute Nafarroakoak baino presio fiskal txikiagoa (Lituania, Bulgaria, Errumania eta Irlanda).

Hori, hein handi batean, enpresek Nafarroako zerga sisteman duten tratu pribilegiatuarengati da, ekonomian duten partaidetzaren oso azpitik ordaintzen baitituzte zergak. 2017an, Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala Europa mailan %2,72koa zen (eskuragarri dagoen azken datua), baina Nafarroan %1,27koa izan zen, EB-28ko txikiena.

Nafarroako sozietateen zergaren presio fiskala Europako batez bestekoarekin berdintzeko, urtean 293,4 milioi euro gehiago bildu behar dira, hau da, bilketa %106,8 handitu beharko litzateke.

Presio fiskala guztira eta Sozietate Zergaren gainekoa. Nafarroa eta EB-28, 2017

	EB-28	Nafarroa	Aldea (€)
Presio fiskala guztira	39,0 %	30,9 %	1.638,9
Sozietate Zergaren gaineko presio fiskala	2,72 %	1,27 %	293,4

Iturriak: Nafarroako Gobernua, Eurostat

- **Diru-bilketaren zama langileen gain dago**

Nafarroako bilketaren zatirik handiena zeharkako zergetatik dator (% 50,4), ordaintzen dituenaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen ez duten zergetatik hain zuzen (BEZ, Zerga Bereziak...). Hau da, zeharkako zergek diru-bilketa osoan zenbat eta pisu handiagoa izan, orduan eta desberdintasun handiagoa sortzen da, gehien dutenek eta gutxien dutenek gauza bera ordaintzen baitute.

Horri gehitzen badiogu zuzeneko zergek biltzen duten 10 eurotik 7 (ordaintzen dituenaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen dituzten zegekin) lan-errentei biltzen zaiela, ondorioztatzen da zerga-bilketak Nafarroan duen pisua langile klasearen gain dagoela. Horrek Nafarroako zerga sistema izugarri bidegabea izatea egiten du.

Horrez gain, soldatapekoen ordainsariak gero eta pisu txikiagoa du ekonomian (% 41,9). Hau da, soldatak ordaintzera 10 eurotik 4 bideratzen dira (BPGrena), baina bilketaren zatirik handiena lanaren errentekin ordaintzen da, 10 eurotik 7 zuzeneko zergetan.

- **Enpresei eta enpresa-errentei iruzur egitea ahalbidetzen zaie**

2017an Nafarroan egindako Sozietateen gaineko Zergaren 18.898 aitorpenetatik 7.837 negatiboak izan ziren. Hau da, Nafarroako 10 enpresatik 4k hazkunde ekonomikoko testuinguru batean galerak zituztela adierazi zuten. Datu horrek ez du berez erakusten zerga horretan dagoen iruzurra, baina susmagarria da edo horren zantzuak ematen ditu behintzat.

Bestalde, laneko errentek PFEZean enpresa-errentek baino etekin askoz handiagoak aitortzeak ere erakusten du errenta horietan dagoen iruzurra. 2017an laneko errentek batez beste 21.176,1

euro aitortu zituzten bitartean, enpresa-errentek 15.737 euro aitortu zituzten, 5.439,1 euro gutxiago.

PFEZeko errenta-aitorpena, jatorriaren arabera (osagai nagusia). Nafarroa, 2017

Laneko errentak	21.176,1
Enpresa errentak	15.737,0

Iturria: Nafarroako Ogasuna

1.1.4- Abenduan egin zen erreformak enpresen neurrira egindako zerga sistema betikotzen du

Nafarroako Gobernuak 2019ko abenduan nahi zituen zerga erreformak aurrera ateratzea lortu zuen, hiru dira aldaketa nagusiak.

Lehenengo erreforma enpresei zerga zama jaisteko zen, enpresei euren ondarearengatik Ondarearen gaineko Zergan ordaindu beharrekoa kenduz (erreforma hau PSNren eta Geroa Bairen aldeko botoarekin eta Navarra Sumaren abstentzioarekin atera zen aurrera). Neurri hau patronalak behin eta berriz eskatutakoa izan da. Azken finean, enpresei zergak are gehiago jaistea dakar, Nafarroako zerga sistema ikusita erabat onartezina den zerbaitekin.

Beste erreforma fiskalak Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk itxi zuten akordioarekin onartu ziren. Akordio horren bidez, PFEZaren deflaktazioa eta amatasunagatik eta aitatasunagatik kobratutako kopuruengatik kenkaria onartu ziren, Gobernuak fiskalitateari buruzko 6 azterlan egiteko konpromisoaren truke.

Beraz, emaitza izan zen Nafarroako Gobernuak nahi zituen hiru neurri fiskal nagusiak aurrera ateratzea lortu zuela, bat Navarra Sumarekin batuz eta beste biak EH Bildurekin adostuta (akordio horrek ez zuen baldintzatu bere babesa Ondarearen gaineko Zergak enpresa ondareari ezartzen zion zerga ezabatzen zuen erreforma kentzera). Zentzu horretan, Podemosen jarrera erabat inkoherentea izan zen, zerga hori ezabatzea sustatu zuen Gobernuak kide izateagatik eta gero legearen aurka bozkatzegatik, bere botoa erabakigarria ez zela jakinda.

1.1.5- Gobernuaren egituraren gairak

Nafarroako Gobernu berriak 9 Departamentutik 13ra handitu du bere egitura. Igoera hori ez da izan kudeaketa administratiboa edo politikoa hobetzeko, Gobernuak sostengatzen duten talde politikoei lekua egiteko eta haien babesa lortzeko baizik. Horren ondorioz, gastua handitu egin da.

Gobernu-egitura handitzeak gastua urtean 6 milioi euro baino gehiago handitzea dakar. Hau da, legegintzaldiko 4 urteetan, gastua 24,2 milioi euro handituko da, 4 Kontseilari gehiago, 12 zuzendaritza nagusi edo erakunde autonomoetako gerentzia gehiago, 3 erakunde autonomoetako zuzendariordetza gehiago, 16 zerbitzu-zuzendaritza gehiago, 56 sekzio-buruzagitza berri, 4 idazkari tekniko, 4 kabineteko buru berri eta 2 kabineteko laguntzaile ordaintzeko.

Gainera, Gobernuaren egitura handitu egin da, eta, beraz, aldatu. 2020rako proiektatutako aurrekontuaren eta aurreko ekitaldietakoaren irakurketa homogenea eragozten du honek. Aurrekontu-proiektuaren azterketa egiteko zailtasuna edo ezintasuna dakar honek, ez baitago aurrekontua aurreko urteekin termino homogeenetan alderatzeko aukerarik.

Kontuan da 4 Departamentu berri sortzeko sail eta zerbitzu batzuk Departamentu batzuetatik beste batzuetara pasatzen direla, eta beste batzuk Departamentu desberdinen artean ere banatzen direla; beraz, ezinezkoa da maila orokorreko konparazioa egitea, beste eduki bat duten sailak alderatzen ari baikara.

1.2- Baldintzatzaile guztien ondoren, aurrekontua egiten da

1.2.1- 2020ko Aurrekontu Proiektua 2019ko gastua baino %3,9 handiago da

2020rako Nafarroako Gobernuak egindako Aurrekontu Proiektuak 4.573,8 milioi euroko gastua aurreikusten du, EH Bildurekin egindako akordioaren 16,7 milioi euroak kontuan hartuta. Eurotan egindako gastuaren bilakaerak erakusten du 2020rako Aurrekontu Proiektuak 2019ko Aurrekontuaren itxiera aurreikuspenak (4.402,9 milioi euro) baino 170,9 milioi gehiago gastatzea aurreikusten duela, %3,9 gehiago.

2020rako aurreikusitako Aurrekontua BPGaren %20,3ko adinakoa da, 2019an baino %0,1 gehiago. Baina Nafarroako Gobernuaren gastu publikoak 2020an izango duen pisua aurreko urteetakoarekin alderatzen badugu, ikusten dugu publikoak gero eta zati txikiagoa hartzen duela ekonomian.

2008an gastu publikoa BPGaren %23,3 zen, 2010ean %21,5 eta 2015ean %21. BPGren 3 puntu galdu dira 2008tik 2020ra. Horrek suposatzen du 2008ko partaidetzari eutsiz gero, 2020ko Aurrekontua 675,5 milioi euro handiagoa izango litzatekeela.

Nafarroako Gobernuaren gastu publikoa (milioi euro eta BPGaren %-a). 2008-2020 (2019 itxiera aurreikuspena III. hiruhilekoan eta 2020 Aurrekontu Proiektua)

2008	2010	2015	2019*	2020*
4.402,4	3.979,0	3.954,8	4.402,9	4.573,8
23,3 %	21,5 %	21 %	20,2 %	20,3 %

Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat

1.2.2- Nafarroako Aurrekontuak ia %40 handitu beharko luke osasunean eta %50 hezkuntzan Europako gastuaren batez bestekoa berdintzeko

Osasun Departamentuak 1.162,3 milioi euroko aurrekontua izango du 2020an Aurrekontuaren Proiektuak jasotzen duenaren arabera. 2019ko itxiera aurreikuspena baino 54,4 milioi gehiago. Aurrekontu hori 2020rako aurreikusitako BPGaren %5,2 da.

Bilakaerak erakusten du gastua 126,2 milioi euro handitu dela 2010etik (2010etik aurrera murrizketa handiak egin ziren osasunean). Hala ere, gastua BPGaren arabera aztertuz gero, osasunean egindako gastua BPGren %5,6tik %5,2ra jeitsi da. 2020an 90,1 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke Osasun Departamentura 2010eko BPGan izandako partaidetza berdintzeko.

Osasunean egindako gastua (milioika euro eta BPGaren %) 2010-2020

	2010	2015	2019*	2020*
Milioi euro	1.036,1	963,8	1.107,9	1.162,3
% / BPG	5,6%	5,1%	5,1%	5,2

Iturria: Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentuaren 2020rako aurrekontua 679,8 milioi eurokoa izango da. Hala ere, Gobernuaren berregituraketarekin, unibertsitateei dagokien aurrekontua beste Departamentu baten mende geratu zen (Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala Departamentuan). Beraz, konparazio homogeneo bat egiteko, beharrezkoa da Hezkuntza Departamentuan aurreikusitako gastuari unibertsitateei dagokien gastua (77,6 milioi euro) gehitzea; horrenbestez, hezkuntzan egindako gastua 753,5 milioi eurokoa izango da 2020an, 2019ko itxiera aurreikuspena baino 43,6 milioi gehiago.

Gastu hori BPGaren %3,3 da, 2019ko partaidetza bera. 2010ean, ordea (murrizketen aurretik), gastua nabarmen handiagoa izan zen BPGarekin alderatuta, BPGaren %3,6koa, 2020rako aurreikusitakoa baino 0,3 puntu handiagoa, 67,6 milioi euroren baliokidea.

Gastua hezkuntzan (milioika euro eta BPGaren %) 2010-2020


	2010	2015	2019*	2020*
Milioi euro	668,1	584,5	709,9	753,6
% / BPG	3,6%	3,1%	3,3%	3,3%

Iturria: Nafarroako Gobernua

Europako gainerako lurraldeekin alderatuta, osasunean eta hezkuntzan egiten den gastua alderatzeak agerian uzten du Nafarroan egiten den gastu publiko eskasa. Osasunaren arloko gastu publikoa BPGaren %5,1ekoa izan zen Nafarroan 2017an (eskuragarri dagoen azken datua), EB-28ko batez bestekoa %7,0koa zen bitartean. Frantziar Estatuak, adibidez, %8,0 bideratzen du. Horregatik, Nafarroa EB-28 atzeko postuetan dago, osasun gastu publiko txikiagoa soilik 8 estatuk dute Europa osoan (Estonia, Bulgaria, Luxenburgo, Hungaria, Polonia, Errumania, Letonia eta Zipre).

BPGren 1,9 punturen gastu diferentzia horrek suposatzen du 2020an Nafarroan osasunean egindako gastua Europako batez bestekoarekin berdintzeko 427,8 milioi euro gehiago handitu beharko litzatekeela aurrekontua (1.162,3 milioi euroko aurrekontua egin da).

Gastu publikoa osasunean (BPGren%). EB-28, 2017




Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat, Eurostat

2017ko hezkuntzako gastu publikoa Nafarroako BPGaren %3,1ekoa izan zen, EB-28ko batez bestekoa %4,6koa izan zen bitartean.

Nafarroa EB-28 osoko bigarren posturik okerrenean dago, Errumaniak bakarrik du gastu txikiagoa. BPGren 1,5 puntuko aldeak suposatzen du Nafarroan aurrekontuetan jasotakoak baino 337,8 milioi euro gehiago gastatu beharko liratekeela EBeko batez besteko gastua berdintzeko.

Gastu publikoa hezkuntzan (BPGren %). EB-28, 2017



Iturriak: Nafarroako Gobernua, Nastat, Eurostat

Guztira, Osasun eta Hezkuntzako batez besteko gastua berdintzeko, 2020rako Nafarroako Aurrekontuak 765,6 milioi euro handiagoa izan beharko luke. Hau da, aurrekontua %16,7

handitu beharko litzateke EB-28ko Osasuneko eta Hezkuntzako gastuaren batez bestekoa berdintzeko bakarrik.

1.2.3- Errenta Bermatuan murrizketak mantentzen dira

Errenta bermatuak 96,3 milioi euro gastatzea aurreikusten du 2020an, 2019ko aurrekontu itxiera aurreikuspenak baino 1,9 milioi euro gutxiago. Bilakaerak erakusten du 2010etik hona gizarte prestazio horretara bideratutako gastua BPGaren %0,12tik %0,43ra pasatu dela.

Errenta Bermatuaren gastua (milioi euro eta BPGaren %) 2010-2018

2010	2015	2019	2020
30,8	65,8	98,2	96,3
0,12%	0,28%	0,45%	0,43

Iturriak: Nafarroako Gobernua

Hala ere, gogoan izan behar da prestazio horrek dakarren murrizketa. Aurreko prestazioa (Gizarteratze Errenta) ordezkatzeko Errenta Bermatua sortu zenean, gutxieneko soldataren erreferentzia kendu zen prestazioa kalkulatzeko oinarritzko zenbateko gisa, eta 600 euroko zenbatekoa ezarri zen haren ordeez.

Azken urteotan eman den gutxieneko soldataren igoerarekin Errenta Bermatuak gero eta pisu gutxiago dauka. 2019an, oinarritzko zenbateko eguneratua 623,63 eurokoa izan da Errenta Bermatuan, eta gutxieneko soldata, berriz, 900 eurokoa izan da. 2020an gutxieneko soldata 950 euroraino igo da, eta Errenta Bermatuaren zenbatekoa eguneratzen denean aldea oraindik handiagoa izango da.

1.2.4- Aurrekontuak elkarrizketa sozialerako finantzaketa jasotzen du

2020rako Aurrekontu Proiektuak 100.000 euroko partida bat jasotzen du elkarrizketa sozialarekin zerikusia duten prestakuntza-planak diruz laguntzeko, hala nola jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak eta abar.

Partidaren zenbatekoaz haratago, langile klaseari mezu faltsu bat bidaltzen zaio, hura osatzen duten sindikatuen eta patronalaren artean interesak partekatzen direla esanez, elkarrizketa sozialak duen interes eta xede bakarra bere biziraupena denean.

2- EH Bildurekin egindako akordioak ez du Gobernuaren proposamenaren orientazio antisoziala aldatzen

Nafarroako Gobernua sostengatzen duten indar politikoek ez dute ordezkari nahikoa Parlamentuan aurrekontua beren kabuz onartzeko. Ondorioz, Nafarroako Gobernua behartuta dago aurrekontua aurrera ateratzeko hura sostengatzen ez duen talde politikoren batekin aurrekontua hitzartzera, urtarrilaren 24an EH Bildurekin egin zuen bezala.

- ***Gastuaren muga handitzea anekdotikoa da***

Akordioaren arabera, aurrekontua 16,7 milioi euro handituko da, hau da, Nafarroako Gobernuaren hasierako planteamendua %0,4 baino ez da handituko (azkenean, gastuaren muga 4.573,8 milioi eurokoa izango da). Bistakoa da hain zifra txikiak ezin duela inolaz ere sozial bihurtu Gobernuaren hasierako aurrekontua.

Aurrekontuaren gehikuntzaren banaketari dagokionez (16,7 milioi euro), alde batetik hitzartu da 5 milioi euro izendapen askeko Tokiko Azpiegituren Planera bideratuko direla. Hau da, 2.000 biztanletik beherako 224 udalerrik 15.000na euro jasoko dituzte, 2.000 eta 2.999 biztanle arteko 23 udalerrik 20.000na euro jasoko dituzte eta 3.000 eta 9.999 biztanle arteko 37 udalerrik 31.892na euro jasoko ditu.

Gainerako 11,7 milioi euro Nafarroako Gobernua sostengatzen duten taldeek eta EH Bilduk bultzatutako zuzenketa partzialak finantzatzeko izango dira.

- ***Akordioak Greba Orokorren aldarrikapenak asetzen dituela ziurtatuz itxaropen faltsuak sortu dituzte***

Akordioaren sinatzaileek, hasiera batean, gastu-muga handitzea nabarmendu zuten akordioaren elementu nagusi gisa. Baina aurrekontua %0,4 baino ez da handitzen.

Oso akordio eskasa da, eduki eskasekoa eta puntu askotan zehaztasunik gabea. Bereziki deigarria da urtarrilaren 30eko Greba Orokorren bi aldarrikapenetan jasotzen den zehaztapen eta konpromiso eza: pentsioak 1.080 eurora arte osatzea eta 1.200 euroko gutxieneko soldata. Gogoratu behar da akordioa urtarrilaren 30eko Greba Orokorra baino sei egun lehenago argitaratu zela, eta horrek itxaropen faltsuak sortu dituela grebaren aldarrikapenen inguruan.

Bi aipamen horiek ez dute ezertan konprometitzen Nafarroako Gobernua, jarraian azaltzen den moduan:

- Pentsioak osatzeari dagokionez, adostutako testuak honako hau dio: "*Nafarroako Gobernuak, estatuko araudi aplikagarriari kalterik egin gabe, sei hilabeteko epean Nafarroako pentsioen zenbatekoen egoera errealari buruzko azterketa bat egingo du... Era berean, pentsio baxuenak egungo gutxiengo soldataren adinakoak izateko osagarria ezartzeak aurrekontuan izango lukeen eragina aztertuko da lehen instantzian, eta, bigarren fase batean, 1.080 euro adinakoak izatea*". Hau da, Gobernuak hartzen duen konpromiso bakarra azterlan bat egitea da.

- 1.200 euroko gutxieneko soldatari dagokionez, honako hau dio testuak: "*Nafarroako Gobernuak, estatuko arau-esparrua kontuan hartuta, 1.200 euroko gutxieneko soldata bultzatzeko konpromiso irmo eta publiko hartzen du*". Akordioaren sinatzaileak erabat jakitun dira ez dutela eskumenik gutxieneko soldataren zenbatekoa finkatzeko eta Gobernuarentzat inolako konpromisorik gabeko adierazpena dela. Akordioaren sinatzaileek aukera izan zezaketen, baina ez dute egin, Nafarroako Gobernuak azpikontrataturako enpresetan lan egiten duten pertsona guztiek gutxienez 1.200 euroko soldata kobratzeko konpromisoa jasotzeko, horretarako eskumenak badituzte eta.

- ***Hezkuntzaren arloko konpromisoek ez dute konpromiso zehatzik jasotzen***

Akordioak hezkuntzaren inguruan atal bat jasotzen du. Bertan 0-3 zikloan lan-baldintzak hobetzeko konpromisoa nabarmentzen da, legegintzaldi honetan Nafarroako Gobernuko langileekin parekatuko direla jasoz, nahiz eta konpromiso hau ez den gehiago zehazten. Gauza bera gertatzen da ratioen murrizketaren aipamenarekin, non asmoen adierazpen bat egiten den, baina inolako konpromiso zehatzik gabe.

Hezkuntza Itunari dagokionez, horren Jarraipen Batzordean egutegi bat aurkeztea da konpromiso bakarra. Gogoratu behar da ELA izan zela 2018an Hezkuntza Ituna sinatu ez zuen Hezkuntzako Mahai Sektorialeko sindikatu bakarra, besteak beste, hura betetzeko inolako bermerik ez zegoelako.

Era berean, aurrekontuak ere ez du aurreikusten aurtun amaitzen den itunpeko irakaskuntzaren akordioa negoziatzeko partidarik. Zentzu honetan, gogora ekarri behar da sektore horretako langileek langile publikoekiko soldata-distantzia handiagora daudela orain UPNren garaian baino.

- ***Inbertsio Finantzarioki Jasangarriak gauzatzea Estatuaren borondatearen arabera da***

Gobernuak, Estatuko araudiak horretarako aukera ematen badu, superabitari lotutako Inbertsio Finantzarioki Jasangarriak gauzatzeko foru-legearen proiektu bat aurkezteko konpromisoa hartzen du. Ez dago zalantzarik Toki Administrazioan inbertsio handiagoa egitea positiboa eta beharrezkoa denik, baina akordio honek ez du hori inondik inora bermatzen. Alde batetik, Estatuko Gobernuaren borondate politikoaren baldintzapean geratzen delako (hau da, Madrilen erabakiko da nafarren dirua hemengo Toki Administrazioan gastatzen den ala ez), eta, beste alde batetik, austeritate politikak erabat mugatzen duen neurria delako.

- ***Akordioak ez du aurreikusten banka publiko bat sortzea***

Testuak jasotzen du Nafarroako Finantza Institutu bat sortzea 2021eko lehen seihilekoan, baina ez du inolako aipamenik egiten banka publiko bat sortzeari buruz. Ildo horretan, gogoratu behar da aurreko legegintzaldian banka publikoaren bideragarritasun juridikoa eta legala aitortu zuen azterlan bat egin zela.

- ***Trantsizio ekologikorako eta jardunbide egokien eta ustelkeriaren aurkako bulegorako aurrekontu-partidak ia funtsik gabe sortu dira***

Klima Aldaketari buruzko Foru Legea onartuz gero diruz hornituko den 10 euroko aurrekontu-partida sortu da. Horrez gain, 2021ean Nafarroako Energia Agentzia sortzeko ikerketak egingo dira.

Era berean, 10 euroko aurrekontu-partida bat ere sortu da Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa martxan jartzeko.

- ***Osasun-zerbitzuak ez pribatizatzeko konpromisoa adostu da, baina ez gainerako zerbitzu publikoena***

ELAk positibotzat jotzen du osasun zerbitzuak ez pribatizatzeko konpromisoa. Sindikatuak, ordea, kezka agertu nahi du ez pribatizatzeko konpromisoa gainerako zerbitzu publikoetara zabaldu ez delako.

- ***Trafiko-eskumena Foruzaingoko agenteekin bakarrik kudeatzeak talka egiten du indarrean dagoen Polizien Legearekin***

Trafikoaren eskumena gain hartzeko Foruzaingoaren plantilla handitzea jasotzen du akordioak. ELA beti izan da eskumen hori Foruzaingoaren gain hartzearen aldekoa, eta prozesu horrekin batera beste polizia indar batzuek atzera egin behar dutela defendatzen du. Horretarako lan eskaintza publikoa egitea beharrezkoa da, Guardia Zibila bezalako indar militarretako kideek inolako lehentasunik izan ez gabe.

Tamalez, aurreko legegintzaldian UPN, Geroa Bai eta EH Bilduren aldeko botoekin onartutako Polizien Legeak bederatzigarren xedapen gehigarrian jasotzen du Guardia Zibileko kideak Foruzaingoa sartzeko aukera, "Pasabidea" deiturikoaren bidez.

Bestalde, Foruzaingoa erretiro aurreratua hartzea aipatzen da akordioan. ELAk bat egiten du aldarrikapen horrekin, baina zehaztasun falta agerikoa da. Are gehiago orain jakin berri denez Mossos d'Esquadra plantillako kideek 2021etik aurrera erretiro aurreratua hartzeko aukera izango dutela.

- ***Lan Osasuneko partidak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langile tekniko eta sanitarioak gehitzera bideratu behar dira***

Akordioan ezabatu egiten da "laneko arriskuen prebentziorako lurralde-ordezkararen" figura finantzatzeko partida, eta zenbateko hori (400.000 euro) sindikatuen (309.575 euro) eta CEN patronalaren (90.425 euro) artean banatzen da.

Partida hori kentzea gauza positiboa da. Hala ere, ELAren iritziz partida horretatik kendutako zenbatekoa Nafarroako Osasun Publiko eta Laboraleko Institutuko Osasun Zerbitzuko langile tekniko eta sanitarioak gehitzeko erabili beharko litzateke, eta ez sindikatuei (ordezkaritzaren arabera) bideratzen zaien partida handitzeko. Eta are gutxiago CENi, diru-laguntza hori modu

nominalean jasotzen baitu (bere ordezkariak zein den frogatu beharrik izan gabe) eta gainera erantzukizun zuzena duelako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen arloan.

Gogoratu behar da "laneko arriskuen prebentziorako lurralde-ordezkariaren" figura finantzatzeko 10 milioi euro baino gehiago esleitu zaizkiola CEN, UGT eta CCOOri 2008az geroztik, eta ez dagoela inolako adierazlerik lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak murrizteko duen eraginkortasunari buruz.

3.- Ondorioak

- 1. Austeritate politikak eta zorrak baldintzatutako aurrekontua.** Aurrekontua Nafarroako Gobernuak betetzen duen austeritate politikarenkin erabat baldintzatuta dago. Are gehiago, politika horren defendatzailea da Gobernu bera. Oso larria da Nafarroak arlo horretan duen erabakitze ahalmena mugatzea, baina askoz larriagoa da Nafarroako Gobernuak politika egiteko modu hori defendatzea.

Zor publikoaren eta itzalpeko bidesariaren arazoari heltzea beharrezkoa eta saihestezina da. Beharrezkoa da aztertzea eta ondorioztatzea zor horren zer zati den zilegi, nola hartu den eta zer interesen alde egiten duen.

- 2. Gizartearen eta sindikatuen parte-hartzerik gabe.** 2020rako Aurrekontu Proiektua inolako parte-hartze sozialik gabe egin da, eta erakunde sozial eta sindikalak aurrekontu-politikaren erabaki eremutik kanpo uzteak kalitatea eta maila demokratikoa murriztu baino ez du egiten.
- 3. Defizita osasunean eta hezkuntzan.** Nafarroako gastu sozialak defizit handia du Europako ingurunearekin alderatuta. Horrek erakusten du aurrekontua %16,7 handitu beharko litzatekeela EB-28ko osasun eta hezkuntza arloko gastuaren batez bestekoa berdintzeko bakarrik.
- 4. Zerga-sistema eskasa, bidegabekoa eta enpresei iruzurra egitea ahalbidetzen diena. Eta hau iraunarazten duen akordioa.** Datuek erakusten dute Nafarroan gutxi biltzen dela (EB-28ko batez bestekoa baino 1.640 milioi gutxiago), modu bidegabean langile klasearentzat (zuzeneko zergetatik 10 eurotik 7 lanaren errentetatik datoz), eta, gainera, iruzur egiteko aukera ematen zaie enpresei eta enpresa-errentei (laneko errentek baino 5.400 euro gutxiago aitortzen dituzte urtean).

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak abenduan aurrera atera zuen zerga erreformak sistema hori iraunaraztea dakar. Alde batetik, erabat gaitzesgarria da Gobernuak Navarra Sumarengana joatea enpresei zergak jaisteko eta Podemosek (Gobernuaren parte izanik) bere jarrera zuzentzen saiatzea aurka bozkatzuz, bere botoa erabakigarria ez dela jakinda. Eta, beste alde batetik, EH Bildurekin gainerako erreforma fiskalak aurrera ateratzea. Azken finean, EH Bilduk gainerako neurriak onartzea posible egin zuen zerga-arloko 6 azterlanen truke, eta ez enpresei zergak ez jaistea baldintza gisa jarri gabe.

- 5. Beharrezkoa da oposizioa egingo duen eta aliatua izango den ezker instituzional bat, aurrekontu eta zerga-politiken erabateko eraldaketa defendatzen dugun indar sindikal eta sozialentzat.** ELAk balorazio negatiboa egiten du Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioari buruz; izan ere, akordio horrekin aurrekontua %0,4 besterik ez da igotzen. Gainera, itxaropen faltsuak sortzen dira akordioak Greba Orokorraren aldarrikapenak asetzen dituela ziurtatuz. Ezkerraren papera ezin da aurrekontu antisozial batzuk zuritzera mugatu. Aurrekontuak ez dira onak nork sinatzen dituen arabera, baizik eta edukiaren arabera.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA